



<p>AZTERKETA EPIDEMIOLOGIKO BATEN JARRAIPENERAKO LAGUNTZA TEKNIKOKO LANAK LIZITATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, GIPUZKOAKO INGURUMEN GUNEA ABIAN EGONGO DEN LEHEN LAU URTEETARAKO</p>	<p>PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA LICITACION DE LOS TRABAJOS DE ASISTENCIA TÉCNICA PARA EL SEGUIMIENTO DE UN ESTUDIO EPIDEMIOLÓGICO DURANTE LOS CUATRO PRIMEROS AÑOS DE FUNCIONAMIENTO DEL COMPLEJO MEDIOAMBIENTAL DE GIPUZKOA.</p>
<p>1. AGIRI HONEN XEDEA</p>	<p>1. OBJETO DEL PRESENTE PLIEGO</p>
<p>Preskripzio teknikoaren agiri honen xedea da eginkizunak eta baldintza teknikoak deskribatu eta zehaztea, hain zuzen ere oinarri izango direnak azterketa epidemiologiko baten jarraipenerako laguntza lanak kontratatzeke, Gipuzkoako Ingurumen Gunea abian egongo den lehen lau urteetarako.</p>	<p>El objeto del presente Pliego de Prescripciones Técnicas es describir y definir los trabajos y fijar las condiciones técnicas que regirán en la contratación de los trabajos de Asistencia Técnica para el seguimiento de un Estudio Epidemiológico durante los cuatro primeros años de funcionamiento del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa.</p>
<p>2. AURREKARIAK</p>	<p>2. ANTECEDENTES</p>
<p>Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorra eguneratu zen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2008-2016 Plan Orokorren (Hondakin Plana) Aurrerabide Dokumentuan, eta luzatu egin zen harik eta Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2019-2030 Plan Orokorra onartu zen arte. Hala, Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016 Plan Orokorren indarraldian zehar, balorizazio energetikoko planta (BEP) eraiki zen Gipuzkoako Ingurumen Gunearen (GIG1) parte gisa; Donostian dago, Zubieta auzoan. Balorizazio unitatea Gipuzkoako Hiri Hondakinaren Azpiegituren Lurraldearen Arloko Planean jasota zegoen. Agiri horren bitartez, lurralde sostengua ematen zaie arloko plangintzan proposatutako kudeaketa irtenbideei (plan hori 2009ko uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretuaren bidez onartu zen, eta 2009ko abuztuaren 6ko GAO n argitaratu zen).</p>	<p>Durante el periodo de vigencia del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa 2002-2016, que fue actualizado en el Documento de Progreso (DdP) 2008-2016 del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa (PIGRUG) y que se prolongó hasta la aprobación del Plan Integral de Gestión de Residuos Urbanos de Gipuzkoa 2019-2030, se construyó una Planta de Valorización Energética (PVE), como parte del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa (CMG1), situado en el término municipal de San Sebastián, concretamente en el barrio de Zubieta. Esta unidad de valorización ya estaba recogida en el Plan Territorial Sectorial de Infraestructuras de Residuos Urbanos de Gipuzkoa, documento que da sustento territorial a las soluciones de gestión planteadas en la planificación sectorial (este Plan fue aprobado a través del Decreto Foral 24/2009, del 21 de julio de 2009, y publicado en el BOG de 6 de agosto de 2009).</p>



Zentzu horretan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak azpiegitura hori eraikitzea bultzatu zuen, ingurumen eraginaren aldeko deklarazioa, Eusko Jaurlaritzaren ingurumen baimen bateratua eta Donostiako Udalaren jarduera lizentzia lortu ondoren. Azpiegitura eraikitzeko lanak lehiaketa bidez esleitu ziren (Gipuzkoako Ingurumen Gunea, 1. fasea, diseinatu, finantzatu, eraiki, martxan jarri eta mantentzea), eta, gorago esan bezala, balorizazio energetikoko planta ere horren barnean dago.

Azpiegitura horren harira, eta hura martxan jartzean ingurumen iraunkortasuneko eta osasun publikoko irizpideak aplikatzen direla ziurtatze aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarrekiko komunikazio eta gardentasun prozesuari jarraipena eman nahi dio, hala izan baita proiektua abian ipini zenetik hona, nahiz eta badakien Europako zuzentarauetan finkatuta dauden eskakizunak betetzen direla. Horretarako, plantaren inguruko airearen kalitatea eta osasun publikoa ebaluatzeko azterketa bat egin zuen 2017ko uztailetik 2019ko abendura bitarte; hau da, planta martxan jarri aurreko fasean.

Testuinguru horretan, eta bat etorritik planta martxan jartzeko fasearekin (2020ko lehen hilabeteetarako aurreikusitako da), Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza teknikoko lehiaketa hau sustatzen du, balorizazio energetikoko planta abian egongo den lehen lau urteetan egingo den azterketa epidemiologikoaren jarraipena egiteko. Azterketaren xedeak izango dira, batetik,aldi horretan zehar airearen kalitateari eragin diezaioketen inguruneko kutsatzaileen bilakaera gainbegiratzea, eta, bestetik, eremu geografiko horretako herritarren osasunean nolako eragina izan dezaketean finkatzea. Halaber, azterketa horretan, emaitzak ebaluatuko dira eta 2017ko uztailetik 2019ko abendura artean, planta martxan jarri aurretik,

En este sentido, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, tras obtener la Declaración de Impacto Ambiental Favorable, la Autorización Ambiental Integrada por parte del Gobierno Vasco y la Licencia de Actividad por parte del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, impulsó la construcción de esta infraestructura, que fue adjudicada mediante el concurso para "Diseño, financiación, construcción, operación y mantenimiento del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa. Fase I" que, tal y como se ha señalado anteriormente, incluye una Planta de Valorización Energética.

En relación con esta infraestructura, la Diputación Foral de Gipuzkoa, con el fin de garantizar la aplicación de criterios de sostenibilidad ambiental y salud pública en su puesta en marcha, y aunque es consciente de que se cumplen los requerimientos establecidos por las Directivas Europeas, tiene la voluntad de dar continuidad al proceso de comunicación y de transparencia hacia la sociedad guipuzcoana desarrollado desde el inicio de este proyecto. Para ello, llevó a cabo, entre julio de 2017 y diciembre de 2019 (fase previa a su puesta en servicio), un estudio de evaluación de la calidad del aire y de la salud pública en el entorno de la Planta.

En este contexto, y coincidiendo con la fase de puesta en servicio de la Planta (prevista para los primeros meses de 2020), la Diputación Foral de Gipuzkoa lanza este nuevo concurso de Asistencia Técnica para el seguimiento del Estudio Epidemiológico que se va llevar a cabo durante los cuatro primeros años de funcionamiento de la Planta de Valorización Energética, y que tendrá por objeto la supervisión de la evolución de los potenciales contaminantes ambientales que afectan a la calidad del aire durante ese período, y establecer su eventual efecto sobre



<p>eginiko azterketa epidemiologikoko datuekin alderatuko dira. Bestalde, horien arteko korrelazioa egokia al den egiaztatuko da, emaitzak hobeto tratatzeko, aztertzeko, osasunerako sor daitezkeen arriskuak ebaluatzeko, eta, hala badagokio, dagozkion ekintzak gauzatzeko, herritarrak zeharo seguru daudela ziurtatzea xede.</p>	<p>la salud en la población de ese ámbito geográfico. Dicho Estudio realizará también la evaluación y comparación de sus resultados con los datos extraídos del Estudio epidemiológico, realizado, entre julio 2017 y diciembre 2019, previamente a la puesta en marcha de la planta, y para el establecimiento de la adecuada correlación entre ellos, de cara al mejor tratamiento de los resultados, su análisis, la evaluación de riesgos asociados para la salud y, en su caso, la toma de las acciones pertinentes que aseguren la plena seguridad de la población.</p>
<p>3. KONTRATUAREN XEDEA</p>	<p>3. OBJETO DEL CONTRATO</p>
<p>Kontratuaren xedea azterketa epidemiologiko baten jarraipenerako laguntza teknikoko lanak lizitatzea da, Gipuzkoako Ingurumen Gunea abian egongo den lehen lau urteetarako. Hartara, GIGko balorizazio energetikoko planta abian jarri ondoko aldian, osasun publikoa ebaluatu ahal izango da, planta hori 2020ko lehen hilabeteetan martxan jarriko baita. Elkarren antza dute egingo den azterketa epidemiologikoak eta 2017tik 2019ra bitarte egindakoak, balorizazio energetikoko planta abian jarri aurrekoak. Azterketak hiru zati izango ditu: lehenik, aireko kutsatzaile atmosferikoekiko esposizioaren ebaluazioa (kutsatzaile gisa ulertuko dira dioxinak-furanoak, PCBak, aztarna elementuak, HAPak, eta PM2,5 partikulak); bigarrenik, kutsatzaileekiko esposizioaren ebaluazioa, biomarkatzaileen analisisa abiapuntutzat hartuta (kutsatzaile gisa ulertuko dira dioxinak-furanoak, PCBak, eta aztarna elementuak); eta, azkenik, osasunaren ebaluazioa epe laburrera eta epe luzera.</p>	<p>El objeto del contrato es la licitación de los trabajos de Asistencia Técnica para el seguimiento de un Estudio Epidemiológico durante los cuatro primeros años de funcionamiento del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa que permita la evaluación de la salud pública en el periodo posterior a la puesta en marcha de la Planta de Valorización Energética que forma parte del CMG, que se pondrá en servicio durante los primeros meses de 2020. El Estudio Epidemiológico a realizar es similar al realizado entre 2017 y 2019, previamente a la puesta en marcha de la Planta de Valorización Energética y se divide en tres partes: la evaluación de la exposición a contaminantes atmosféricos en aire (entendiéndose como contaminantes las dioxinas-furanos, PCBs, los elementos traza, los HAPs y las partículas PM2.5), la evaluación de la exposición a contaminantes a partir de análisis de biomarcadores (entendiéndose como contaminantes las dioxinas-furanos, PCBs y los elementos traza) y por último, la evaluación de la salud a corto y largo plazo.</p>



<p>4. JARDUKETA EREMUA</p>	<p>4. ÁMBITO DE ACTUACIÓN</p>
<p>Aurreko azterketaren jarraipen gisa, jarduketa eremu geografikoa bere garaian hautatu ziren bi gunek izango dira: gunetako batean plantaren igorpenekiko esposizioa dagoela ulertzen da, Donostiako Zubieta auzoan, Lasarten eta Usurbilen; eta beste gunea plantaren igorpenetatik urrun dago, baina horren ezaugarriek lehen gunearen ezaugarrien antza dute. Bigarren guneari kontrol gune esango zaio, eta, hartan, Urretxu eta Ordizia udalerriak daude. Erkatzeko oinarri gisa erabiliko da, emaitzen jarraipena egiteko. Era horretan, aurreko azterketa epidemiologikoa abiarazteko baldintzak beteko dira; izan ere, horren xedea zen eremu geografiko horietan sor zitezkeen kutsatzaileen bilakaera eta horien eragina ebaluatzea, epe jakin batean.</p>	<p>Dando continuidad al estudio anterior, el ámbito geográfico de actuación se mantiene en las dos zonas elegidas en su momento: una zona considerada como expuesta a las emisiones de la Planta, que comprenderá el barrio de Zubieta de Donostia/San Sebastián y las localidades de Lasarte y Usurbil, y otra zona alejada de las emisiones de la planta con características similares a la primera. La segunda zona, denominada zona de control, Urretxu y Ordizia, sirve como base de comparación para el seguimiento de los resultados obtenidos. De esta manera, se satisfacen las condiciones por las que fue puesto en marcha el Estudio Epidemiológico precedente que tenían como objetivo evaluar en un plazo determinado la evolución de los potenciales contaminantes en esos ámbitos geográficos y sus efectos.</p>
<p>5. LANEN EDUKIA</p>	<p>5. CONTENIDO DE LOS TRABAJOS</p>
<p>5.1. Laguntza teknikoko lanen deskripzioa</p> <p>Atal honetan, laguntza teknikoko zer zeregin gauzatu behar diren azalduko da, 2020tik 2023ra artean. Aintzat hartu behar da azterketa epidemiologikoan hiru ildo hauek jorratuko direla:</p> <p>1. ildoak: Aireko kutsatzaile atmosferikoekiko esposizioaren ebaluazioa. GIGko balorizazio energetikoko planta martxan jarriko dela eta, horren eraginpeko airearen kalitatearen bilakaera ebaluatu nahi da. Horretarako, funtsezko ingurumen kutsaduraren balioak (inmisio mailak) neurtuko dira eraginpean dagoen gunean eta kontrol gunean.</p>	<p>5.1 Descripción de los trabajos a desarrollar por la Asistencia Técnica</p> <p>Se exponen en el presente apartado las tareas a llevar a cabo por la Asistencia Técnica entre 2020 y 2023, teniendo en cuenta que el Estudio Epidemiológico trabajará en las siguientes tres líneas diferenciadas:</p> <p>Línea 1: Evaluación de la exposición a contaminantes atmosféricos en aire. Con el objetivo de evaluar la evolución la calidad del aire por el efecto de la puesta en servicio de la Planta de Valorización Energética del CMG, se medirán los valores de la contaminación ambiental de fondo (niveles de inmisión) existente en la zona expuesta y en la zona de control.</p>



2. ildoak: Kutsatzaileekiko esposizioaren ebaluazioa, biomarkatzaileen analisisa abiapuntutzat. Herritarren organismoari eragiten dieten kutsatzaileen balio basalak aurreko azterketan finkatu ziren, eta horien bilakaera ebaluatzeko, zeharkako azterketarekin jarraituko da; xede horrekin, eraginpean dagoen guneko herritarren eta kontrol guneko herritarren odol eta gernu laginak erabiliko dira.

3. ildoak: Osasunaren ebaluazioa epe laburrera eta epe luzera. Plantaren jarduerak ustez eragin diezaikeen herritarren osasunak nolako bilakaera duen diagnostikatzeko, eraginpean dauden herritarren eta kontrol guneko herritarren heriotza tasaren, minbiziaren, morbiditatearen, sortzetiko gaixotasunen eta bestelakoen erregistroak aztertuko dira, aurreko fasean lortutako ereduak oinarritzat hartuta.

Línea 2: Evaluación de exposición a contaminantes a partir de análisis de biomarcadores. Con el objetivo de evaluar la evolución de los valores basales, fijados en el estudio anterior, de contaminantes impregnados en el organismo de la población, se dará continuidad al estudio transversal en muestras de análisis de sangre y orina sobre la población de la zona expuesta y de la zona de control.

Línea 3: Evaluación de la salud a corto y largo plazo. Con el objetivo de diagnosticar la evolución del estado de salud de la población hipotéticamente afectada por la actividad de la planta, sobre la base de patrones alcanzados en la fase previa, se estudiarán los registros de mortalidad, cáncer, morbilidad, congénitos y enfermedades de la población expuesta y de control.

Hona hemen laguntza teknikoko zereginak:

- a) Azterketaren esleipendunak aurkeztutako zereginen plangintza xehea aztertu behar da.
- b) Azterketaren esleipendunak egin beharreko zereginen hileroko jarraipena egin behar da, epe ertainera (hiru hilabete), eta epe luzera (12 hilabete, eta azterketa osoa), azterketa epidemiologikoaren agirietan eskatzen denari jarraituz.
- c) Hilero, bilerak egingo dira lanaren zuzendaritza teknikoarekin eta azterketaren esleipendunaren taldearekin, azterketaren jarraipena egiteko. Hartara, bileren deialdiak prestatu behar dira, eta bilerak bideratu.
- d) Lanaren zuzendaritza teknikoak eskatuta, beste bilera batzuen deialdiak

Las tareas que la Asistencia Técnica deberá desarrollar, serán las que a continuación se relacionan:

- a) Análisis de la planificación detallada de tareas previstas presentada por el Adjudicatario del Estudio
- b) Seguimiento mensual de las tareas a realizar por el Adjudicatario del Estudio a medio plazo (3 meses) y a largo plazo (12 meses y Estudio completo) de acuerdo con lo exigido en los pliegos del Estudio Epidemiológico
- c) Convocatoria y dirección de reuniones mensuales de seguimiento del Estudio, con la Dirección Técnica del Trabajo y con el equipo del Adjudicatario del Estudio
- d) Convocatoria y dirección de otras reuniones a llevar a cabo a solicitud de



prestatu behar dira, eta bilera horiek bideratu	la Dirección Técnica del Trabajo
<p>5.2. Mugarriak eta prestatu behar diren agiriak</p> <p>Atal honetan, laguntza teknikoaren esleipendunak 2020tik 2023ra artean prestatu beharreko agirien berri emango da, azterketa epidemiologikoaren esleipendunak bete behar dituen mugarri hauek kontuan hartuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hasierako bilera (1LI, 2LI, 3LI). - Aurreko faseko (1LI, 2LI, 3LI) informazioa biltzea, 2017tik 2019ra bitartean eginiko azterketa epidemiologikoaren azken txostenean jasota dagoena, Gipuzkoako Ingurumen Guneko balorizazio energetikoko plantaren harira. Gainera, azterketa horren aurreko faseetan bildutako datuak ere aztertu ahal izango dira. - Aireko laginen plana (1LI) / lagin biologikoen plana (2LI) - Aireko laginen kanpaina (1LI) / lagin biologikoen kanpaina (2LI) - Laborategiko analisia: aireko laginak (1LI) / lagin biologikoak (2LI) - Datuen georreferentzia finkatzea (3LI) - Lan ildo bakoitzeko datuak tratatzea eta azterzea (1LI, 2LI, 3LI) - Emaitzak aurreratzea, ondorioak ateratzea (ahal denean) eta gomendioak egitea (1LI, 2LI, 3LI) Aurrerapen txostenak hiru hilean behin prestatuko dira, eta hiruhileko bakoitza amaitutakoan aurkeztuko. - Azterketa honetako emaitzak eta 2017-2019ko azterketa epidemiologikoko datuak baliatuz lortzen diren emaitzak eta ondorio orokorrak, eta azken txostena prestatzea (1LI, 2LI, 3LI). Datuen ondorioz beharrezkoa izanez gero, sor daitezkeen gomendioak ere jasoko dira. 	<p>5.2 Hitos y documentos a elaborar</p> <p>Se exponen en el presente apartado los documentos a elaborar por la Asistencia Técnica entre 2020 y 2023, teniendo en cuenta los siguientes hitos que el Adjudicatario del Estudio Epidemiológico deberá cumplir:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Reunión inicial (Líneas: L1, L2, L3) - Fase de recogida de información de la fase previa (L1, L2, L3) incluida en el Informe Final del Estudio Epidemiológico en relación con la Planta de Valorización Energética que forma parte del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa, realizado entre 2017 y 2019. Además, se podrán analizar, los datos recogidos durante las fases previas del citado Estudio para su análisis. - Plan de muestreo en aire (L1) / plan de muestreo biológico (L2) - Campaña de muestreo en aire (L1) / campaña de muestreo biológico (L2) - Análisis de laboratorio: muestras aire (L1) / muestras biológicas (L2) - Georreferenciación de datos (L3) - Tratamiento y análisis de datos de cada línea (L1, L2, L3) - Avance de resultados, conclusiones (cuando sea posible) y recomendaciones (L1, L2, L3). Los informes de avance serán secuenciados trimestralmente y presentados siempre a la finalización de cada trimestre - Resultados y Conclusiones globales extraídas de los resultados obtenidos en el Estudio actual, así como en relación con los datos del Estudio Epidemiológico 2017-2019 y elaboración del Informe Final (L1, L2, L3). También se incluirán



Laguntza teknikoaren esleipendunak agiri hauek prestatu eta aurkeztu beharko ditu:

- a) Azterketa epidemiologikoaren esleipendunak egiten dituen lanen jarraipenerako txostena, hilean behin.
- b) Laneko bileren aktak, eta zereginen jarraipena egiteko eta koordinatzeko hileroko bileren aktak.
- c) Azterketa epidemiologikoaren esleipendunak egiten dituen lanen hileroko ziurtagirien proposamena, lanaren zuzendaritza teknikoak onartzeko.
- d) Lanaren zuzendaritza teknikoak eskatzen dituen beste txosten batzuk.
- e) Egindako lanak laburbiltzen dituen azken txosten teknikoa eta ekonomikoa. Txostenean, lanen alderdi teknikoak eta ekonomikoa aztertuko dira, eta agiriekin bat al datozen adieraziko da.

Ikuspegi formalari begira, esleipendunak paperean eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusian erabiltzen den softwarearekin bateragarria den euskarri informatiko batean aurkeztuko du txostena. Paperean aurkeztu behar diren agirien kasuan, bi kopia aurkeztuko dira, orrien bi aldeetan inprimatuak eta paper birziklatua erabilia; halaber, behar bezala koadernatuta egongo dira, DIN A4 formatuan.

posibles Recomendaciones, en caso de que los datos obtenidos así lo recomienden

Los documentos que el adjudicatario de la Asistencia Técnica deberá elaborar y entregar serán los siguientes:

- a) Informe mensual de seguimiento de los trabajos que realice el adjudicatario del Estudio Epidemiológico.
- b) Actas de las reuniones de trabajo y reuniones mensuales de seguimiento y coordinación de tareas.
- c) Propuesta de certificaciones mensuales de los trabajos realizados por el adjudicatario del Estudio Epidemiológico, para su aprobación por la Dirección Técnica del Trabajo.
- d) Otros informes de trabajo que solicite la Dirección Técnica del Trabajo
- e) Informe técnico y económico final resumen de los trabajos realizados. El informe abordará una valoración técnica y económica de los trabajos indicando su adecuación o no a los pliegos.

Desde un punto de vista formal, se deberá presentar por parte del adjudicatario en papel y en soporte informático compatible con el software utilizado en la Dirección General de Medio Ambiente. Para aquella documentación que tenga que ser presentada en formato papel, se presentarán dos copias impresas a doble cara, en papel reciclado, debidamente encuadradas, en formato DIN A4.



<p>5.3 Bitarteko materialak</p> <p>Langileen joan-etorrien ondorioz sortzen diren gastu guztiak (bidaiak, dietak, etab.) bere gain hartuko ditu laguntza teknikoaren esleipendunak, eta eskainitako prezio unitarioetan sartuta daudela ulertzen da.</p>	<p>5.3 Medios materiales</p> <p>Serán por cuenta del adjudicatario de la Asistencia Técnica los gastos de todo tipo (viajes, dietas, etc.) que se originen a consecuencia del desplazamiento de su personal, considerándose incluidos en el precio ofertado.</p>
<p>6. LANEN IRAUPENA</p>	<p>6. DURACIÓN DE LOS TRABAJOS</p>
<p>Agiri honetan arautu diren lanen iraupena bat etorriko da azterketa epidemiologikoaren kontratua gauzatuko den epearekin; alegia, lanek lau urte iraungo dute.</p>	<p>El plazo de duración de los trabajos regulados por el presente pliego será coincidente con la ejecución del contrato del Estudio Epidemiológico, es decir, de 4 años.</p>
<p>7. LANAREN ZUZENDARITZA TEKNIKOA</p>	<p>7. DIRECCIÓN TÉCNICA DEL TRABAJO</p>
<p>Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko langileek beren gain hartuko dute lanaren zuzendaritza teknikoa. Zuzendaritza teknikoak funtzio hauek izango ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lanetarako beharrezkoak diren bitartekoak eta antolakuntza eskura egon daitezen eskatzea. - Preskripzio teknikoen agiria eta kontratuan edo xedapen ofizialetan finkatutako bestelako baldintzak interpretatzea. - Lanaren xede den gaiari buruz Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak zehaztu ditzakeen irizpideak txerta daitezen eskatzea. - Lanak egin ahala beharrezkoak diren aldaketak programatzea. Zentzu horretan, zuzendaritza teknikoak erabateko ahalmena du abian dagoen lana edo egiteko dagoena aldatzeko, kasuan kasuko egoerarekin eta lortzen doazen emaitzekin 	<p>La Dirección Técnica del trabajo será asumida por el personal de la Dirección General de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Serán funciones de la Dirección Técnica:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Exigir que existan los medios y organización necesarios para el desarrollo de los trabajos - Interpretar el Pliego de Prescripciones Técnicas y demás condiciones establecidas en el contrato o en disposiciones oficiales - Exigir la incorporación de los criterios que la Dirección General de Medio Ambiente pueda ir definiendo sobre la materia objeto del trabajo - Programar las modificaciones que convenga introducir en el desarrollo de los trabajos, para lo cual la Dirección Técnica está expresamente facultada, tanto en tareas en realización o por realizar, de acuerdo con las circunstancias especiales



<p>bat etorriz, baldin eta amaierako aurrekontua aldatzen ez bada.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Esleipendunak aurkeztutako agiri partzialak eta amaierakoak aztertzea. Testua, taulak eta grafikoak zuzentzeko eta aldatzeko eska dezake, egokia iruditzen bazaio, behin betiko agiriak jaso aurretik. - Eginiko lanen ziurtagiriak eta likidazioak prestatzea, aldeztu aurretik adosten diren gauzatze eta ordaintze epeen arabera, baldin eta, zuzendaritza teknikoaren iritziz, eginiko lanek agiri honen xede diren eskakizunei erantzuten badiete. 	<p>de cada caso y los resultados que se vayan obteniendo, siempre que ello no afecte al presupuesto final</p> <ul style="list-style-type: none"> - Examinar la documentación parcial y final aportada por el adjudicatario, pudiendo señalar las correcciones y modificaciones de texto, tablas y gráficos, que considere oportunas antes de su recepción definitiva - Expedir las Certificaciones y Liquidaciones de la labor realizada, según los plazos ejecución y abono que se hayan acordado, siempre que a juicio de la Dirección Técnica el trabajo entregado satisfaga las exigencias del objeto de este pliego
<p>8. ADMINISTRAZIOARI EMAN BEHARREKO LAGUNTZA</p>	<p>8. ASISTENCIA A LA ADMINISTRACIÓN</p>
<p>Esleipendunak behar adina zerbitzu profesional gauzatuko ditu administrazioarentzat, lana behar bezala egiteko eta xedea betetzeko, kostu gehigarriak abe. Zerbitzu horiek, adibidez, bileretara joatea izan daiteke, azalpenak eta informazioa emateko erakundeetako ordezkari, hedabideei eta herritarrei, oro har. Halaber, zuzendaritza teknikoak beharrezkotzat jotzen dituen jarraipen bileretara joan beharko du, hark adierazten duen tokian.</p> <p>Betebehar horri erantzun beharko dio lanak amaitu eta urtebete igarotzen den arte.</p>	<p>El adjudicatario facilitará a la Administración, sin ningún coste adicional, cuantos servicios profesionales se estimen convenientes para el correcto desarrollo y cumplimiento del objetivo del trabajo, tales como asistencia a reuniones explicativas y de información a los representantes institucionales, medios de comunicación y al público en general, personándose en cuantas reuniones de seguimiento sean consideradas necesarias por la Dirección Técnica y en el lugar que ésta designe.</p> <p>Esta obligación se mantendrá hasta un año después de la finalización de los trabajos.</p>



9. ADMINISTRAZIOAK ESKURA JARRIKO DITUEN AGIRIAK	9. DOCUMENTACIÓN APORTADA POR LA ADMINISTRACIÓN
<p>Esleipendunak beste iturri batzuetatik lor ditzakeen agiriez gain, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak esleipendunaren eskura jarriko ditu Ingurumen Zuzendaritza Nagusian dauden agiri guztiak, lanarekin lotuta daudenak.</p> <p>Besteak beste, esleipendunaren eskura jarriko dira 2017tik 2019ra bitarte eginiko azterketa epidemiologikoaren emaitza guztiak, Gipuzkoako Ingurumen Guneko balorizazio energetikoko plantaren harira prestatu baitzen.</p>	<p>Con independencia de la documentación que el adjudicatario pueda obtener de otras fuentes, el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas pondrá a disposición del adjudicatario cuanta documentación relacionada con el trabajo exista en la Dirección de Medio Ambiente.</p> <p>El adjudicatario dispondrá, entre otros documentos, de los resultados completos del “Estudio Epidemiológico, realizado entre 2017-2019, en relación con la Planta de Valorización Energética que forma parte del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa”.</p>

Sin: Ángel Mª Gundín Pérez
Técnico de Medio Ambiente

Sin: José Luis Andueza Zabala
Responsable de residuos y playas